

aspaldidanik sumatu dugun hutsunea betetzera etorri da. Bai eskoletako materialak prestatzeko, bai doktorego-tesiak burutzeko, bai proiektuak egiteko eta dudarik gabe euskara normalizatzeko ezinbesteko tresna dugu hiztegi hau.

Beraz eta laburbilduz, merkatuan zegoen eskaintzarekiko, liburu honek dakarren aurrerapenaz gain, ikerkuntzaz kezkatuta gauden euskaldunentzat, lehendabiziko euskarazko erreferentzia garbia daukagu eta honek, gaurtik aurrera egin beharreko lanan hobekuntza eta txukuntasunerako bide berriak irekitzen ditu.

Urte hauetan, indarrean ipintzen ari diren ikasketa-plan berriei begiratu, oinarrizko testua izatera deituta dago obra hau. Hain zuzen ere, Ikerkuntzaren esparruan euskaraz eskaintzen diren ikasgaientzat eta ez bakarrik "Pedagogian lizenziatua" tituluari, baizik eta "Gizarte Hezitzailea" diplomatura eta "Psikopedagogia" lizentziatura tituluari ere.

*Carlos M<sup>a</sup> Santiago Etxeberria*

#### ESPARZA SAN JUAN, X.

La Cueva de Isturitz. Su yacimiento y sus relaciones con la Cornisa Cantábrica durante el Paleolítico Superior  
Madrid: Universidad Nacional de Educación a Distancia, 1994. - 309 orr., 92 irudi, 12 taula (Aula Abierta 82)  
ISBN 84-362-3144-9

Duela urtebete Isturitz haitzuloaren induketa ezberdinetan aurkitutako harrizko eta hezurrezko industriari ikerketa sakona liburu formatoan argitaratu da. Honen mamia ikertzaile honek 1991 -nibertsitate berberan defenditu zuen Doktore-Tesian biltzen da. Lan ikusgarri honetarako behar zuen datu-bilketa 1984 eta 1987 bitartean burutu zuen, inolako laguntza ofizialik gabe, Paristik hurbil dagoen Musée des Antiquités Nationales-ean (Saint-Germain-en-Laye), hemen kontserbatzen baitira aztarnategi honetako bilduma garrantzitsuenak. Gainera, ikerketa ahal zen osoena egiten saiatu zen Baionako Euskal Erakustokian kontserbatzen diren materialak ere aztertuz.

Lan hau aipagarria dela esateko arrazoi asko daude, baina lehenik gogora ditzagun Isturitz haitzuloaren inguruan egon diren hainbat zoritxarreko gertaera, horrelako baldintzak dituen aztarnategi baten ikerketak sortzen dituen mugez jabetzeko. Horrela, XIX. mendearen azken urteetan eremu mugatu bateko hezurak eta, fosfato gisa sistematikoki ustiatuak izan ziren, horko material arkeologiko ia guztiak hondatu.

Lehenengo indusketa zientifikoak E. Passemard-ek (1913-22) egin zituen eta lan horien txosten orokorra 1944ean argitaratu zuen. Gainera, goraiatzekoak dira bere erabaki hauek: geletako indusketa eremuak azpizatitzea (gaur egun eskergarria dena bere garaian kritikatu izan zen), indusketa eremu txiki batera mugatzea eta aurkitutako material arkeologikoak Frantziako Museo Nazionalei saltzea bilduma sakabanatu ez zedin.

Bestalde, 1928tik 1952 arte, R. eta S. de Saint-Périer Konteek Passemardek utzitako lekuak ia neurririk gabe industu zuten eta euren lanen emaitza hiru monografiko ikusgarritan (aztarnategiaren deskripzio sakonak daude, irudi eta argazki ugari eta kalitatezkoak...) argita-

ratu zuten. Baina, behintzat gaur egungo ikuspegitik eta egileak dioen bezala, indusketa hauek nahikoa kritikagarriak dira, etorkizunerako gordeta gelditu ziren datuetako aako galdu edo ahitu egin baitzituen aukeratutako indusketa-eremua handigia zelako, indusketa-metodologia (ez garai haietako bikainena) berbera erabili zuelako 30 urteetan, etab. Azken batean ondorengoentzat utzita zegoen ondarea zenbait mailatan ia zeharo ahitu zueiako objektu apur batzuk gehiago lortzearren, ikuspuntu zientifiko kaxkarrez jokatuz etorkizunera begira. Gainera, indusketa hauetan jasotako materialak euren Morigny-gazteluko bilduma pribatua osatzera joan ziren; ondorioz hainbat urtetan horien ikerkuntza oso mugatua izan zen eta beste zen-ait garaitan edozeinen eskutan eror zitezkeen kontrol zehatzik ez zegoelako. S. de Saint-Périer 1978an hil zenean bilduma, testamentuak zioen bezala, Sorbonako Unibertsitatearen esku gelditu zen, nahiz eta 1981aren ondoren *Musée des Antiquités Nationales*-ean gordetzen den.

Liburua hamabi kapitulutan banatuta dago, hauei ondorioak eta bibliografia gehitzen zaizkielarik. Lehenengo kapituluan azalki haizuloaren kokapen geografikoa egiten da; bigarrenean berriz, bera lekutzen den Gaztelu-mendian XIX. mendetik gaurdaino egin diren iharduera arkeologikoak eta espeleologikoak eta hauen ondorioz lorturiko emaitzak (besteak beste, Oxocelhayako eta Erberuako hormetako arte-lanak) aurkezten dira kronologikoki. Ondorengo bi kapituluetan (3. eta 4.ean) E. Passe-ard-ek eta R. eta S. de Saint-Périer-ek Isturitzen egin zituzten indusketen historia azaldu ostean, bosgarrean, haizuloaren bi geletan ikusi ahal izan ziren estratigrafiak eta euren ezaugarriak azaltzen dira. Datu *herri* ugarietak horik aurrerantz garatzen diren ataletan (6.etik 11.era) aurki daitezke, indusketetan bereiztu ziren Goi-Paleolitoko eta Epipaleolitoko kulturak utzitako aztarrenak, batez ere harrizkoenak, ikertzen baitira. Azkenik, 12. kapituluan, Isturitzek Kantauri aldearekin Goi-Paleolitoko zehar izan zituen harremanak aztertzen dira beste atal batean lortu diren emaitzak azalduz.

Ikergai gisa Isturitz-aztarnategia hautatzea oso interesgarria da Goi-Paleolitoko kulturetara hurbiltzeko, batez ere mailetako batzuen emankortasuna ikusirik (adibidez Aurignac-, Goi Perigord-, Erdi eta Goi Magdalen-aldietan) eta orain arte neurri handi batean ia ezezaguna ziztaigula jakinda hainbat ikuspegitatik, bere arte-lanak salbuespen izanik. Gainera haizuloaren kokapen geografiko estrategikoak, hots, hiru aztarnategi-gune (Dordoña-Pirinio-Kantauri aldea) esanguratsuren bide gurutzean egoteak izugarritzko garrantzia eskaintzen dio hainbat eragin kultural eta aurrerapen teknologiko aztertzeke, garai horietako gizaki harrapakari-hilzaileek sarritan gurutzatuko baitzituzten lurralde hauek hornikuntza iturri ezberdinen hila, bitarte horretan hurbilketa kultural bat erakarriz eremu hauetara. Isturitz, batzuen ustez talde ezberdinen bilgunea, Pirinioen iparraldeko eta Kantauri aldearen arteko kontza edo suri bezala definitu izan ohi da.

Aurrean dugun lan hau zuin bat da Isturitz eta bere inguruko lurralde zabal bateko lehen gizakiaren ezagutzarako. Bertan, eta lehen aldiz, indusketa nagusietan lortutako harrizko industrien bilduma osoak (37.000 ale) aztertzen dira, gaur arte genituen hainbat hutsune betez. Hemen, ahal den neurrian, gaudituzko orain arteko zantzuen kuantifikazio partzialak eta aztarnategiaren zatikako ikuspegiak. Lan hau Isturitzeko industrien ikerketa gaurkotuaren froga dugu, ez soilik terminologian, baita helburuetan ere, nahiz eta az-en honek gaintziezina diren hainbat oztopo edo muga dituen, indusketa-metodologiak garaian garaiko helburuei eta arazoei erantzuteko xedea izaten baitu, Indusketa-etodologiaren hutsek -aterial bilketa partziala eta hautakorra, zantzuen kokapen espazialari buruzko datu eza, etab.) industrien ikerketa, bere zentzu -abalenean tresnen azterketara mugarazi dute. Horrela, lanketa-hondakin oso gutxi jaso zenez tresnagintzarako aplikaturiko tekniken azterketa ez da egiterik izan,

nahiz haitzulo honetako zantzu industrialaren kopuru garrantzitsuak aukera ezin hobea eskaini zezakeen.

Bestalde, koordetu kartesiarren ~istema indusketan ez erabiltzeak (edo bestelako sistemaren bat aurkikuntzen kokapen espazial zehatza egiteko), haitzuloaren barnean horizontalki egin ziren iharduera berezituaren ikerketa galarazi du, zeren nahiz eta txostenetan adierazi halako edo holako berezitasunak ikusi zirela, bildumetan kontserbatzen diren materialetan ez dago inolako datu objetiborik (aztarnategiaren izena, maila, eta urtea ezik), ez bada E. Passemarden saiakera mugatua, bere garaian kritikaturia, industu zituen haitzuloaren geletako espazioa alor ezberdinetan ( $\alpha$ ,  $\beta$ ,) azpi-zatikatu zuelako. Gainera, datu ezak estratigrafia bertikalean lor zitekeen hainbat informazio galtzea (maila magdaleniarretako hezurrezko tresnerian ikusi zuten bilakaerari buruzko zehaztasunak; beste azpimailen existentzia frogatzeko datuak...) ekarri du oztopo gandiezinak ezarriz. Hala eta guztiz ere, esan behar da, ikertzaileak egin d-en Isturitzeko estratifikazioaren berrikusketa interesgarria dela. Berak, Passemard eta Saint-Perder-ek adierazitako sekuentziak parekatu ondoren, zenbait zehaztasun proposatzen ditu ikertzaile bakoitzaren sekuentziez eta hauen interpretazio kulturalaz.

Argi dago, gaur egungo helburuak lortu ezinezkoak direla aintzinako indusketen bitartez, baina baita hauek baztertu edo zokoratu beharrean ikertu egin behar direla gaurko ezagueretatik ere, eta ahal den neurrian eurek eskaini dezaketen informazioa xurgatu. Eskutan dugun liburua, esan daiteke, Isturitzen edo Gazteluko muinoan etorkizunean egingo diren lanetarako oinarritzakoa izango, berton jasotzen delako, oraingoz behintzat, hango industrien ikerketa oso-ena eta gaurkotuena.

Joxean Mujika Alustiza

LLOMBART PALET, José

El Centro de Estudios Científicos de San Sebastián

Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995. - 199 p. : il.

(Cuadernos de sección. Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas, 3)

ISBN 84-87471-95-6

La institucionalización de las iniciativas intelectuales produce resultados positivos en cuanto se presentan condiciones mínimamente favorables para el desarrollo de las actividades. Así, la institucionalización de la historia de la ciencia en la Facultad de Ciencias de la Universidad del País Vasco, en la persona del Profesor José Lombart Palet, ha dado ya excelentes frutos en lo que se refiere a la historia de las matemáticas en general y a su concreción en el País Vasco. El más reciente de los productos elaborados por Lombart es este interesantísimo libro sobre *El Centro de Estudios Científicos de San Sebastián* que acaba de dar a la luz la Sociedad de Estudios Vascos.

El conocimiento de la ciencia y de su historia está íntimamente vinculado al de las instituciones donde aquélla se desarrolló. Sin embargo, es error increíblemente extendido la consideración positiva de unas pocas, escasísimas, instituciones científicas a lo largo de la historia, mientras la inmensa mayoría de las mismas son tácitamente despreciadas, en la medida en que la ignorancia o el olvido representan al desprecio. La fina sensibilidad intelectual de Lombart y su acendrada profesionalidad como historiador de la ciencia le han evitado